

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Proiektua aurrera eramateko beharrezkoak izango diren baliabideak hiru talde ezberdinetan sailkatu ditugu; hasteko *giza baliabideak* taldea hautatu dugu, hau da, gure taldearen parte izango diren pertsona fisikoak, gurekin lan egingo dutenak, hauek euskal kulturari eta mendiei (mendi-martxetan monitoreak izango direnak) buruzko ezagutzak menperatu behar dituzte, gainera gazteek haien artean nola komunikatzen diren jakin behar dute.

Gero, baliabide fisikoei dagokienez furgoneta izango litzateke funtsezkoa, balorezko proposamenean azaldu den moduan.

Azkenik, finantziarioa lortzeko Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak eta udalak euskara, kultura eta helburu sozialak sustatzen dituen proiektu edo enpresei ematen dizkieten laguntzak jasoko ditugu.

